# GR 38 ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arrantza-portu nagusien eta Arabako Errioxaren artean egiten zuten bidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkataritzarako.

*La ruta del vino y del pescado era la ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.*




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, jantziak, botikina, mugikorra…).

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, ropa, botiquín, móvil...).*

Ez piztu surik, horretarako diren lekuetan izan ezik, eta erretzailea bazara gorde zure zigarrokinak.

*No enciendas fuego, salvo en los lugares destinados a ello y si fumas llévate las colillas.*

Gomendagarria da mugikorraren bateria ondo kargatuta eramatea.

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

Ez irten seinaleztatutako bideetatik, errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

*No te salgas de los caminos señalizados, respeta el entorno y a los demás senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Urdaibaiko Biosfera Erreserban barrena dabilen GR 38aren adar nagusiaz gain, Lekeitio eta Ondarroako portuetara heltzen diren beste saihesbide batzuk existitzen dira, Lea-Artibaiko eskualdea zeharkatzen dutenak. Arrantza-herri zoragarri horiez gain, saihesbide hauek interes handiko leku batzuk bisitatzeko aukera emango digute, Ziortzako kolegiata, Bolibarko herria edo Lea ibaia, besteak beste.

*Junto con el ramal principal del GR 38, que se interna en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai hacia Gernika-Lumo y Bermeo, existen otras variantes que buscan los puertos más orientales de Lekeitio y Ondarroa, en la comarca de Lea-Artibai. Además de estos encantadores pueblos pesqueros, estas variantes nos permitirán visitar algunos lugares de gran interés como la Colegiata de Ziortza, la puebla de Bolibar o el río Lea.*

KMZ

GPX

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Herri arrantzaleen artean Lekeitio aitzindaria da. Oso ezaguna da uztailaren hirugarren astean ematen izan den ospakizuna, "Hegaluzaren astea" zeinetan arrantza-azokaz gain, dastaketa gastronomikoez eta hainbat hitzaldiz ere goza daiteke. Gainera, Lekeitioko jai eskaintza zabala handitu egiten da ekainean San Pedroetan Kaixarranka dantzarekin, eta irailean San Antolin eta antzarrekin.

*Lekeitio es una de las localidades pesqueras con más solera. Es muy conocido el evento de "la semana del bonito" que hasta ahora se ha celebrado en la tercera semana de julio. en la que además de la Feria pesquera, se puede disfrutar de degustaciones gastronómicas y de charlas informativas. Además, la amplia oferta festiva de Lekeitio se amplía en junio "sanpedros", con el tradicional baile de la Kaixarranka y en setiembre, con los populares "sanantolines" y su fiesta de los gansos.*





Ondarroako alde zaharrak Erdi Aroko eta itsasoko kutsu berezia du, kale estu eta aldapatsuekin. Interes arkitektoniko handiko eraikinak ditu ere, hala nola Artibai ibaiaren gaineko zubi zaharra, XV. mendeko Likonako dorrea, XV. mendeko Santa Maria eliza eta XX. mendeko Santiago Calatravaren zubi berria. Gainera, maiatzean Antxoa eguna ospatzen da, eta bertan antxoa pintxoak dastatu, arrain kontserbak erosi eta giroaz gozatzeko aukera dago.

*El casco viejo de Ondarroa tiene un sabor medieval y marinero inconfundible, con calles estrechas y empinadas. Alberga edificios de gran interés arquitectónico, como el Puente Viejo sobre el río Artibai, la Torre de Likona, del siglo XV, la iglesia de Santa María, también del siglo XV y el Puente Nuevo, obra de Santiago Calatrava, del siglo XX. Además, en el mes de mayo se celebra el Antxoa Eguna, donde se puede degustar pintxos de antxoa, adquirir conservas de pescado y disfrutar del ambiente.*

# ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA
# RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

GR 38.1 / GR 38.2 / GR 38.3

7b 7c 7d

**ZIORTZA > LEKEITIO**

**ZIORTZA > ONDARROA**



eu es

EUSKADI BASQUE COUNTRY

## GR 38.1
## 7b - ZIORTZA > LEKEITIO SANTUTXUTIK POR SANTUTXU

Ziortzako kolegiatan hasi eta Erdi Aroko galtzadatik Bolibarko herrigunera jaitsiko gara, erromesen bidea kontrako noranzkoan eginez. Hortik, Bedartzandiko kareharrizko mendigunera igoko gara Lea eta Artibai ibaien arroen eta hauen bokaleen ikuspegi zabalekin gozatzeko. Jaitsieran, beste aldean dagoen bidegurutze batean, Santutxuko ermitarekin egingo dugu topo; GR 38.1 saihesbidetik Lekeitiora heltzeko ezkerreko bidetik jarraituko dugu. Amorotoko elizateraino iritsi baino lehen, sakabanatutako hainbat baserri eta auzo txikiren ondotik igaroko gara. Handik gutxira, Lea ibaia eta Oleta eta Gizaburuaga lotzen dituen errepidea gurutzatuko ditugu. Hortik aurrera azken aldapa baino ez da geratuko Lekeitiotik banantzen gaituen muinoa gainditzeko.

*Comenzamos la andadura en la colegiata de Ziortza (o Zenarruza) y descendemos por la calzada medieval al núcleo de Bolibar, realizando el mismo camino de los peregrinos pero en sentido contrario. Desde aquí se acomete la ascensión al macizo calcáreo de Bedartzandi que nos ofrecerá amplias vistas de las cuencas del Lea y del Artibai y sus desembocaduras. En el descenso, ya al otro lado, nos topamos con la ermita de Santutxu situada en una encrucijada caminos. Para proseguir hacia Lekeitio por el GR 38.1 continuamos por la izquierda. Antes de alcanzar la anteiglesia de Amoroto, habremos pasado junto a varios caseríos y barrios dispersos. Poco después se cruza el río Lea y la carretera que une Oleta con Gizaburuaga. Sólo resta el último repecho para salvar el promontorio que nos separa de Lekeitio.*

21,5 km | 870 m | 7h 25' | MIDE 1-2-2-4




## GR 38.1 > GR 38.2
## 7c - ZIORTZA > ONDARROA

Santutxuko ermitaraino GR 38.1 saihesbidearen ibilbide beretik jarraituko dugu, baina Ondarroara heltzeko ostera, eskuineko bidetik egingo dugu aurrera. Sakabanatutako baserri eta pinudien artean aurrera egin ahala, Markina-Xemein eta Berriatuaren ikuspegiez gozatzeko aukera izango dugu hainbat puntutan. Gero, Bi-2405 errepidea zeharkatu ondoren, Merelludi auzo txikia eta San Antolin ermita igaroko ditugu. Eliza hau Berriatuako lehen parrokiatzat hartzen da eta inguruan Erdi Aroko kokaleku bat egon zitekeela uste da. Kalamendi mendiaren magalari jarraituz, Ondarroako panoramikaz gozatu ondoren, GR 123arekin bat egingo dugu eta etapa amaierara arte lagun izango dugu. Azken tarte honetan, Asterrika auzotik igarotzerakoan San Lorentzoko ermita gotikoa eta iturri bat aurkituko ditugu.

*Hasta la ermita de Santutxu se sigue el mismo trazado por la GR 38.1 pero, si nuestra intención es proseguir en dirección a Ondarroa, en ésta habrá que girar a la derecha. Vamos avanzando entre caseríos aislados y pinares que, en determinados puntos, nos ofrecerán sendas panorámicas sobre Markina-Xemein y Berriatua. Tras cruzar la Bi-2405, se pasa el pequeño barrio de Merelludi y la ermita de San Antolín. Este templo es considerado como la primera parroquia de Berriatua y se cree que en los alrededores pudo existir un asentamiento medieval. Siguiendo las faldas del monte Kalamendi, tras disfrutar de una nueva panorámica, esta vez sobre Ondarroa, nos unimos al GR 123, que ya nos acompaña al final de etapa pasando por el barrio de Asterrika, donde encontramos la gótica ermita de San Lorenzo y una fuente.*

23,1 km | 805 m | 7h 45´ | MIDE 1-2-2-4




## GR 38.3
## 7d - ZIORTZA > LEKEITIO LEATIK POR EL LEA

Kolegiatatik, GR 38.1 saihesbidea albo batera utzi eta Gorontzugarai gainetik eta Uriona auzotik doan Donejakue bidea jarraituko dugu. Gero, egurrezko eskailera batzuetatik jaitsiz Gerrikaitzeko uri zaharrera helduko gara. Ondoren, Munitibarren, San Bizente elizaren ondoan, Gernikarantz jarraitzen duten Donejakue bideko gezi horiak utzi, eta Lea ibaia gurutzatuz ibaiaren ibilguari jarraituko diogu. Hortik aurrera, ia zailtasunik gabe, ibai honek oparituko dizkigun ur gardenak, ur-jauzi txikiak, presak, errota eta burdinola zaharrak eta gainerako paraje ederrak aurkituko ditugu, Lekeitioko Isuntza eta Karraspio hondartzen artean itsasoratzen den bokaleraino.

*Desde la colegiata, nos desviamos de la variante GR 38.1 siguiendo el trazado del Camino de Santiago por el alto de Gorontzugarai y el barrio de Uriona, bajando por una escalinata de madera hasta la vieja villa de Gerrikaitz. Seguidamente, en Munitibar, junto a la iglesia de San Vicente, dejamos las flechas amarillas del Camino que continúan hacia Gernika, cruzamos el río Lea, y nos unimos a su curso. A partir de aquí, sin apenas dificultad iremos descubriendo pequeños saltos de agua, presas, viejos molinos y ferrerías y el resto de bellas estampas que nos regalará este río de aguas cristalinas, hasta su desembocadura entre las playas de Isuntza y Karraspio de Lekeitio.*

24,5 km | 195 m | 5h 35' | MIDE 1-1-1-3




## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- GR 38.1 eta GR 38.3 aldaerak bide desberdinetatik iristen dira Lekeitiora. Lehenengoak etapa menditsuagoa eskaintzen du eta bigarrenak ia ez du zailtasunik, Lea ibaiaren ondoan egokitutako bide bati jarraituz. Ziortzan banatzen diren arren, Olaeta auzoa baino apur bat lehenago gurutzatzen dira berriro, Abixatan.

- *Las variantes GR 38.1 y GR 38.3, alcanzan la villa de Lekeitio por caminos diferentes. La primera ofrece una etapa más montañera y la segunda apenas ofrece dificultad, siguiendo un camino acondicionado junto al río Lea. Aunque se separan en Ziortza, se vuelven a cruzar poco antes del barrio de Oleta, en Abixata.*

2021: Covid 19ren pandemian gauden bitartean, eutsi eskuen higieneari eta distantzia sozialari, eta jarraitu agintariek mugikortasunari edo maskaren erabilerari buruz emandako aginduei. Horrez gain, komeni da aldez aurretik egiaztatzea ostatuen eta beste zerbitzu batzuen irekitzeko ordutegiak eta egutegiak.

*2021: Mientras nos encontremos en pandemia de Covid 19, extrema la higiene de manos y distancia social, y sigue las indicaciones de las autoridades referentes a la movilidad o el uso de mascarillas. Además, es recomendable comprobar previamente los horarios y calendarios de apertura tanto de alojamientos como de otros servicios.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Lekeitioko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de Turismo de Lekeitio* | 946 844 017 |
| Ondarroako Turismo Bulegoa<br>*Oficina de Turismo de Ondarroa* | 946 831 951 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |



GR 38.3
ZIORTZA
Km. 0
Aulesti
Km. 10,8
Gizaburuaga
Km. 16,9
Abixata
Km. 19,6
LEKEITIO
Km. 24,5
ZIORTZA > LEKEITIO
ZIORTZA > ONDARROA
Maskakorta
San Kristobal
Uriona
Gorontzugarai
Oiz
ZIORTZA
BOLIBAR
Zubia
Puente
Errepidea gurutzatzean
Cruce de carretera
San Juan
AULESTI
MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAITZ
Santa Magdalena
Iluntzar
GIZABURUAGA
Bengolea
Dorretxea
Casa torre
AMOROTO
Abixata
LEKEITIO
Santa Catalina
Itsasargia
Faro
Otoio
Magdalena
Mariterrota
Oleta
MENDEXA
Errepideko tartea
Tramo por carretera
San Martin
Malats
Magdalena
Zeinka
Bedartzandi
Urregarai / Igoz
Santa Eufemia
Santutxu
Saratsua
Itufiomendi
Merelludi
San Antolin
Eizagirre
Kalamendi
Asterrika
MARKINA-XEMEIN
BERRIATUA
Akarregi
ONDARROA
Tontorramendi
Saturraran
BI-633
BI-2405
BI-2238
GR 123
IKURRAK LEYENDA
GR 38
Beste GRak
Otros GRs
Donejakue bidea
Camino de Santiago
Iturria
Fuente
Atsedengunea
Área recreativa
Eraikin erlijiosoa
Edificio religioso
Interes puntua
Punto de interés
Jatetxea
Restaurante
Ostatu turistikoak
Alojamientos turísticos
Bestelako aterpetxeak
Otros albergues
Kanpina
Camping
Diru kutxa
Cajero
Denda
Tienda
Medikua
Servicio médico
Atsedengunea
Área recreativa
Farmazia
Farmacia
Turismo bulegoa
Oficina de turismo
Informazio gunea
Punto de información
Munduko Ondarea
Patrimonio Mundial
Museoa
Museo
Ibilbidearen jarraipena
Continuidad del sendero
Norabide aldaketa
Cambio de dirección
Okerreko norabidea
Dirección equivocada
GR 38.1
ZIORTZA
Km. 0
SANTUTXU
Km. 10,5
AMOROTO
Km. 16,4
ABIXATA
Km. 18
LEKEITIO
Km. 21,5
GR 38.2
SAN ANTOLIN
Km. 16,4
ONDARROA
Km. 23,1